Eraikinen azpian garatzen den edozein alternatibak kontuan izan behar du sestra azpiko solairu kopurua eta, aurreikus daitekeen zimendatzeari dagokionez, behar bezainbesteko babesza izan behar du. Errekalde eta Irala auzoen inguruan altuerako eraikinak daude eta horietako batzuek sestra azpiko sotoko solairuak dituzte, baita garajeak ere. Aipatzekoa da, halaber, egoiliarren lurpeko hainbat aparkaleku daudela, sestra azpiko eta hainbat solairudun aparkalekuak, Bilboko Udalaren webgunean inbentariatuta agertzen direnak.

- **Errekalde plaza, Anboto 2:** Egoiliarren aparkalekua, Errekalde plazaren azpian dagoena, Gabriel Aresti Ikastetxe Publikoaren eta Lemoatx kalearen artean. Ibilgailuen sarbidea Anboto kalean dago. Aparkatzeko hiru maila ditu.
- **Ametzola, Trenbideko etorbidea 28:** Egoiliarren aparkalekua, Trenbideko etorbidean, Irala auzoari zerbitzua ematen dion igogailu berriaren eta Antonio de Trueba kalearen arteko tartean. Aparkalekuak sartzeko arrapala bakarra du, Trenbideko etorbideko 38. eraikinarekin partekatuta. Aparkatzeko hiru solairu ditu.
- **Kirikiño, Kirikiño etorbidea 10:** Egoiliarrentzako aparkalekua, Errege-erregina Katolikoek kaleak eta Kirikiño etorbideak osatzen duten plazaren azpian. Ibilgailuen eta oinezkoen sarbidea Kirikiño etorbidean dago. Aparkatzeko hiru solairu ditu.

5. PROPOSATZEN DEN IRTENBIDEAREN DESKRIBAPENA

Azpiegitura osoa lurperatuta egongo da, meatze-tunelean zulatuta. Guztira 2.330 metroko luzera izango du, trenbide bikoitzean, eta tarteko bi geltoki izango ditu, Errekalde eta Irala auzoetan.

Abando inguruan hasten da, ADIF RAMen trazadurarekin konektatuko litzatekeen lekuan, Abandoko trenbide-korridorearen aurreko tunelean, eta Elejabarriko ADIF RAMen tunel faltuaren inguruetan amaitzen da. Azterlan informatibo honen xede den azpiegitura berriaren tartea meatze-tunelean igaroko litzateke puntu horien artean, Abando, Irala, Errekalde eta Elejabarri auzoak zeharkatuz, betiere eraikitako azaleraren azpian eta sakonera handian.

Tunelak osagai baldintzatzaileen atalean deskribatutako azpiegitura ugariak saihesten ditu, horien ginetik edo azpitik igaroz eta, gurutzatzen dituenean, galerien arteko distantzia diametro batetik gorakoa izango da, ADIFen zabalera konbentzionaleko lineen kasuan izan ezik, horietan estalki eskasaren azpitik gurutzatzen baitu. Gurutzatze hori bideragarria da, sekzio indartuak eta tratamendu bereziak baititu. Gainera, baliteke tunela ADIFen zabalera konbentzionaleko tunelak jada erabiltzen ez direnean egiteko aukera egotea, hau da, Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea martxan jartzen denean eta AHTa Abandora sartzeko lanak egiten ari direnean egitea.

La estación de Irala se emplaza soterrada a considerable profundidad bajo el barrio de Irala, siendo la diferencia de cotas con el terreno sobre el eje de la misma de entre 35 y 25 metros. Los cañones de acceso resultan por ello de considerable longitud.

La caverna de Irala tiene un total cuatro accesos desde el exterior, dos cañones, una batería de ascensores y un ascensor para PMR. Los usuarios acceden a la estación, procedentes de la superficie, por los accesos que comunican la calle con el vestíbulo, desde la Plaza Eskurtze y la calle Juan de Garay, desde el ascensor de la Avda. Kirikiño y la batería de ascensores de la Avenida Bergara.

La estación de Rekalde se proyecta soterrada en las inmediaciones de la Plaza Rekalde, cruzando diagonalmente bajo la Calle Gordoniz. Cuenta con dos cañones de entrada, cuyos accesos en superficie distan entre sí 260 metros y una caverna de 108 metros de longitud entre testeros.

La caverna de estación está bastante profunda respecto a la superficie, al igual que ocurría con la caverna de Irala, motivado por la presencia en el Barrio de Rekalde de una zona en el entorno de la Calle Gordoniz en el que el espesor de suelos es considerable. El resultado son más de 30 metros de diferencia de cota entre los vestíbulos de la estación y la superficie, salvados mediante cañones de acceso de considerable longitud que discurren, en los tramos más cercanos a superficie, bajo espacios de uso público no edificados.

La Estación cuenta con dos cañones de acceso, desde la Plaza Rekalde y la Calle Gordoniz y un ascensor para usuarios de movilidad reducida en la Plaza Rekalde.

La excavación del nuevo trazado se plantea desde dos rampas de ataque distintas, una desde el Parque Eskurtze, que entronca con el túnel de línea entre las estaciones de Rekalde e Irala y otra desde la Calle Masustegi frente a la Plaza Basurtugorta, que entronca con el túnel de línea en el tramo final del mismo. Estas galerías se convertirían, finalizadas las obras, en instalaciones de emergencia para la nueva línea, compartiendo los usos de salida de emergencia y ventilación de emergencia del túnel de línea.

Las obras en superficie se reducirán a los accesos a dichas rampas y la posterior conversión de las mismas en salida/ventilación de emergencia, los accesos peatonales a las estaciones de Rekalde e Irala, las ventilaciones de emergencia y evacuación bajo andén de dichas estaciones y un poco de bombeo.

Iralako geltokia lurpean kokatzen da, sakonera handian Irala auzoaren azpian, eta haren ardatzaren araberrako lursailaren koten arteko aldea 35 eta 25 metro bitartekoa da. Hori dela eta, sarbide-kanoiak nahiko luzeak dira.

Iralako haitzuloak, guztira, lau sarbide ditu kanpotik, bi kanoi, igogailu-multzo bat eta mugikortasun urriko pertsonentzako igogailu bat. Erabiltzaileak gainazaletik sartzen dira geltokira, kalea eta ataria lotzen dituzten sarbideetatik: Eskurtze plazatik eta Juan de Garay kaletik, Kirikiño etorbideko igogailutik eta Bergara etorbideko igogailu-multzotik.

Errekaldeko geltokia lurperatuta dago proiektuan, Errekalde plazaren inguruan eta Gordoniz kalearen azpitik diagonalean gurutzatuz. Bi sarbide-kanoi ditu, elkarren arteko 260 metroko distantziarekin gainazaleko sarbideetan, eta buruhormen artean 108 metroko luzera duen haitzulo bat du.

Geltokiko haitzuloa nahiko sakona da gainazalari dagokionez, Iralako haitzuloarekin gertatzen zen bezala, Errekalde auzoan Gordoniz kalearen inguruko eremu bat dagoelako, zeinetan lurzorua oso lodia baita. Horren ondorioz, geltokiko atarien eta gainazalaren kotaren arteko aldea 30 metrotik gorakoa da. Alde hori gainditzeko, sarbide-kanoi nahiko luzeak erabiltzen dira, eta, gainazaletik hurbilen dauden tarteetan, eraiki gabeko erabilera publikoko espazioen azpitik igarotzen dira.

Geltokiak bi sarbide-kanoi ditu, Errekalde plazatik eta Gordoniz kaletik sartzeko, eta mugikortasun urriko erabiltzaileentzako igogailu bat du, Errekalde plazan.

Trazadura berriaren indusketa bi eraso-arrapatatetik egingo da: bata Eskurtze parketik, Errekalde eta Irala geltokien arteko lineako tunelarekin lotuz, eta bestea Masustegi kaletik, Basurtugorta plazaren paretik, lineako tunelaren azken zatian lotuz. Lanak amaitzen direnean, galeria horiek linea berrirako larrialdi-instalazio bihurtuko lirateke, eta lineako tunelaren larrialdietako irteerako eta larrialdietako aireztapeneko erabilerak partekatuko lituzkete.

Gainazaleko lanak arrapala horietarako sarbideetara mugatuko dira; ondoren, larrialdietako irteera/aireztapen bihurtuko dira, Errekalde eta Iralako geltokietarako oinezkoentzako sarbideak egingo dira, eta geltoki horietako larrialdietako aireztapenak eta nasa azpiko ebakuazioa eta ponpaketa egingo dira.

5.1 TRAZADO

En el “Anejo 6: Trazado” se describen en profundidad los condicionantes tenidos en cuenta en el trazado de la línea, se explican los criterios de diseño geométrico utilizados y se describe en detalle el trazado diseñado.

A continuación, se describen los condicionantes, de entre todos los descritos, que han influido en mayor medida en el trazado diseñado y las características de dicho trazado.

5.1.1 ASPECTOS CLAVE DEL TRAZADO

5.1.1.1. INFRAESTRUCTURAS Y EDIFICACIONES EN EL ENTORNO DE LA TRAZA

• Túneles de ADIF ancho convencional

En el inicio del trazado resulta inevitable el cruce en planta con los túneles ferroviarios de ancho convencional operados por RENFE que discurren en las cercanías de la Estación de Abando:

- Túnel de cercanías de la línea de viajeros de RENFE (Línea 720 de ADIF): Dado que las obras de la futura Intermodal de Abando obligarán a cortar el servicio de la Línea de viajeros de RENFE en Ametzola temporalmente, el cruce entre ambas infraestructuras podría realizarse con poca tapada de roca entre ambos túneles sin poner en riesgo el servicio, adoptando soluciones potentes que garanticen la viabilidad a futuro de la solución adoptada.
- Variante de mercancías de RENFE (Línea 726 de ADIF): Este túnel podría a futuro dejar de ser un condicionante cuando la nueva VSF sea puesta en servicio.

• Túneles de la línea de ancho métrico Basurto-Ariz

Ya en el entorno del barrio de Irala, la traza de la Línea 4 cruzaría en planta los túneles de las Variantes de mercancías de la antigua FEVE, hoy cedidos al gestor ferroviario vasco.

- Ramal Basurto-Ariz (Variante de Mercancías de FEVE). Línea exclusiva de mercancías, en vía única y sin electrificar, que une la línea de ADIF RAM en Basurto con Ariz y discurre soterrada en falso túnel bajo las Calles Jaén y Eskurtze, pasando luego a túnel en mina.
- Antiguo trazado de la Variante de mercancías de FEVE. Infraestructura hoy en desuso y también cedida al Gobierno Vasco que mantiene un tramo en falso túnel bajo el parque Eskurtze.

Ambas infraestructuras han sido tenidas en cuenta en el encaje del perfil longitudinal de la nueva línea. La ejecución de la rampa de ataque desde el Parque Eskurtze afectará temporalmente un pequeño tramo de falso túnel en el parque, tramo que se repondrá finalizadas las obras.

5.1 TRAZADURA

Linearen Trazaduran kontuan hartu diren osagai baldintzatzaileak sakon deskribatzen dira “6. Eranskina: Trazadura” deritzon eranskinean. Bertan, erabilitako diseinu geometrikoko irizpideak azaltzen dira eta xehetasunez deskribatzen da diseinatutako trazadura.

Jarraian, deskribatutako osagai baldintzatzaile guztien artean, diseinatutako trazaduran eragin handiena izan dutenak deskribatzen dira, trazadura horren ezaugarriekin batera.

5.1.1 TRAZADURAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK

5.1.1.1 TRAZADURAREN INGURUKO AZPIEGITURAK ETA ERAIKINAK

• Zabalera konbentzionaleko ADIFen tunelak

Trazaduraren hasieran, saihestezina da Abandoko geltokitik gertu RENFEk kudeatzen dituen zabalera konbentzionaleko trenbide-tunelak oinplanoan gurutzatzea:

- RENFEren bidaiarien lineako aldirietako tunela (ADIFen 720. linea): Abandoko Intermodala izango denaren lanak direla eta, RENFEren Ametzolako bidaiari-linearen zerbitzua aldi baterako eten beharko da. Aukera hori baliatuta, bi azpiegituren arteko gurutzatzea bi tunelen arteko arroka-estalki txikiarekin egin liteke, zerbitzua arriskuan jarri gabe eta irtenbide sendoak baliatuz, erabiliko den irtenbidearen etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.
- RENFEren salgaien saihebidia (ADIFen 726. linea): Etorkizunean, Hegoaldeko Trenbide Saihebidia berria martxan jartzen denean, tunel hori ez da osagai baldintzatzaile izango.

• Basurto-Ariz zabalera metrikoko lineako tunelak

Irala auzoaren inguruan, 4. linearen diseinuak FEVE zaharraren salgaien saihebidien tunelak zeharkatuko lituzke oinplanoan; horiek trenbideen euskal kudeatzaileari lagata daude.

- Basurto-Ariz adarra (FEVEren salgaien saihebidia). Línea hau salgaiantzat bakarrik da, bide bakarrean eta elektrifikatu gabe doa; ADIF RAMen línea Arizekin lotzen du Basurtun, eta Jaen eta Eskurtze kaleen azpitik igarotzen da, tunel faltsuan lurperatuta, gero meatze-tunelera igaroz.
- FEVEren salgaien saihebidiearen trazadura zaharra. Gaur egun ez da erabiltzen eta azpiegitura Eusko Jaurlaritzari laga zitzaion; Eskurtze parkearen azpian tunel faltsuko tarte bat du.

Bi azpiegitura horiek kontuan hartu dira línea berriaren luzetarako profila ahokatzear.

Eskurtze parketik egingo den eraso-arrapalak aldi baterako eragina izango du parkeko tunel faltsuaren tarte txiki batean; lanak amaitu ostean tarte hori leheneratu egingo da.

**ESTUDIO INFORMATIVO DE LA LÍNEA 4 Y ZONA SUR DEL
FERROCARRIL METROPOLITANO DE BILBAO**

Memoria

**BILBOKO TRENBIDE METROPOLITARRAREN 4. LINEARI ETA HEGOALDEARI
BURUZKO AZTERLAN INFORMATIBOA**

Página 14

X0000178-14-EI-ANE-MEM-BIL-Ren2.docx

- Túneles de desagüe La Peña-Olabeaga

El trazado de la Línea 4 también cruzaría en planta con el trazado previsto para estos túneles, siendo necesario conseguir una adecuada distancia a los mismos. La información existente es una propuesta definida a nivel de anteproyecto del by-pass subterráneo entre los Barrios de La Peña y Olabeaga.

- Edificaciones y aparcamientos subterráneos

Existe un condicionante adicional a todo lo anterior que es la importante densidad de edificaciones existente en ambos barrios. Dado que el trazado se prevé subterráneo en todo el tramo objeto del estudio, los edificios introducen como principal condicionante las plantas de sótanos bajo cota de calle y las propias cimentaciones.

Si bien una importante proporción de las edificaciones existentes en el ámbito en el que se desarrolla el estudio carecen de plantas sótano, si se ha detectado la presencia de alguna planta de sótano en alguno de ellos, aunque ninguno con una cercanía al túnel proyectado que suponga un condicionante serio.

Las edificaciones con mayor profundidad de sótanos se corresponden precisamente con aparcamientos municipales para residentes construidos en estos barrios, a instancias municipales, para mitigar el problema que supone la ausencia de plazas de aparcamiento en la mayor parte de edificaciones de la zona.

De entre los aparcamientos existentes dos han sido los que más han condicionado el trazado finalmente adoptado para la nueva línea:

- **Aparcamiento Avenida Kirikiño**: Aparcamiento para residentes situado en el Barrio de Irala bajo la plaza formada por la calle Reyes Católicos y Avda. Kirikiño. El aparcamiento coincide en planta con el trazado del actual FEVE en el tramo en que conectaría con la nueva Línea 4, por lo que el trazado de la nueva línea ha de tener en cuenta su presencia a la hora de diseñar el perfil longitudinal de la nueva infraestructura.
- **Plaza Rekalde**: Aparcamiento de residentes situado bajo la plaza Rekalde en el espacio comprendido entre el Colegio Público Gabriel Aresti y la calle Peña Lemona. El acceso rodado se encuentra en la calle Amboto. También cuenta con dos accesos peatonales, uno de ellos con ascensor, situados en los extremos de la zona deportiva que hay sobre el aparcamiento. Dispone de tres niveles de aparcamiento. Esta edificación constituye un importante condicionante, dada su cercanía a Plaza Rekalde, punto estratégico donde resulta necesario ubicar uno de los accesos a la estación.

- Abusu-Olabeaga hustubide-tunelak

4. linearen trazadurak ere oinplanoan zeharkatuko luke tunel horietarako aurreikusitako trazadura, eta beharrezkoa izango litzateke haiekiko distantzia egokia lortzea. Dagoen informazioa Abusu eta Olabeaga auzoen arteko lurpeko by-passaren aurreproiektu gisa zehaztutako proposamena da.

- Eraikinak eta lurpeko aparkalekuak

Aurreko guztiari eragiten dion beste osagai baldintzatzaile bat dago: bi auzoetan dagoen eraikin-dentsitate handia. Azterlanaren xede den tarte osoan trazadura lurpekoa izango dela aurreikusten denez, eraikinek kaleko kotaren azpiko sotoko solairuak eta zimenduak beraiek sartzen dituzte baldintzatzaile nagusi gisa.

Azterlana garatzen den eremuan dauden eraikinen proportzio handi batek sotoko solairurik ez badu ere, horietako batean detektatu da sotoko solairuren bat, baina horietako bat bera ere ez dago proiektatutako tuneletik gertu; beraz, horrek ez dakar baldintzatzaile larrik.

Sotoen sakontasun handiena duten eraikinak auzo horietan egoiliarrentzat egindako udal aparkalekuei dagozkienak dira; udalak eskatuta eraikitakoak dira, inguruko eraikin gehienetan aparkalekurik ez egoteak dakarren arazoa arintzeko.

Dauden aparkalekuen artean, bi izan dira linea berrirako azkenean aukeratu den trazadura gehien baldintzatu dutenak:

- **Kirikiño etorbideko aparkalekua**: Egoiliarrentzako aparkalekua, Irala auzoan dagoena, Errege-erregina Katoliko kaleak eta Kirikiño etorbideak osatzen duten plazaren azpian. Aparkalekua, oinplanoan, bat dator egungo FEVEren trazadurarekin, 4. linea berriarekin konektatuko litzatekeen zatian. Hori dela eta, linea berriaren trazadurak kontuan hartu behar du haren presentzia azpiegitura berriaren luzetarako profila diseinatzerakoan.
- **Errekalde plaza**: Egoiliarren aparkalekua, Errekalde plazaren azpian dagoena, Gabriel Aresti Ikastetxe Publikoaren eta Lemoatx kalearen artean. Ibilgailuen sarbidea Anboto kalean dago. Oinezkoentzako bi sarbide ere baditu, aparkalekuaren gainean dagoen kirol-eremuaren muturretan, eta horietako batek igogailua du. Aparkatzeko hiru maila ditu. Eraikuntza hori oso baldintzatzaile garrantzitsua da, Errekalde plazatik gertu baitago, eta gune estrategikoa baita, bertan kokatu behar delako geltokirako sarbideetako bat.

5.1.1.2. GEOLOGÍA Y GEOTECNIA

Uno de los aspectos que más ha condicionado finalmente el trazado de la nueva infraestructura, tanto en planta como en alzado, ha sido la presencia en el Barrio de Rekalde de una banda en el entorno de la Calle Gordoniz en el que el contacto suelo-roca se produce a gran profundidad.

Esta potencia de suelos condiciona la ejecución de la estación de Rekalde ya que obliga a elegir entre una estación excavada en mina a profundidad suficiente para garantizar la necesaria tapada de roca sobre la clave de la misma, o bien, encajar un trazado que permita ejecutar el tramo de la nueva línea coincidente con esos suelos a cielo abierto.

Para la identificación detallada de la profundidad relativa del contacto suelo-roca se ha realizado un Estudio Geofísico mediante MASW y HVSR que ha permitido obtener una superficie aproximada del contacto suelo-roca en el ámbito de Rekalde

5.1.2 DESCRIPCIÓN DEL TRAZADO

El eje de definición geométrica de la nueva Línea 4 se inicia en el PK 0+000 coincidiendo con el punto en el que se entroncaría a futuro con el trazado de la Línea de ancho métrico de ADIF operada por FEVE, coincidiendo con el túnel de acceso de ésta a Abando.

En el extremo opuesto del trazado, entroncaría con la línea de ADIF RAM coincidiendo con el falso túnel del soterramiento de esta entre las Estaciones de Basurto y Ametzola, muy cerca de la primera de ellas.

El trazado completo de estos ejes garantiza la viabilidad de la conexión, si bien **sólo es objeto del presente Estudio Informativo el tramo de nueva infraestructura que se extendería entre el PK 0+120 y el PK 2+450.** Se trata de un tramo de 2.330 metros excavado en túnel que integra dos estaciones diseñadas en caverna y dos rampas de ataque que podrán utilizarse, a futuro, como salidas de evacuación.

5.1.1.2. GEOLOGIA ETA GEOTEKNIA

Azkenik, azpiegitura berriaren trazadura gehien baldintzatu duen alderdietako bat, bai oinplanoan, bai altxaeran, Errekalde auzoan Gordoniz kalearen inguruan dagoen zerrenda bat da, non lurzorua eta arroka arteko kontaktua sakonera handian gertatzen baita.

Lurzoruen potentzia horrek baldintzatu egiten du Errekaldeko geltokia; izan ere, bi aukeraren artean hautatzera behartzen du: meatzean zulatutako geltoki bat egitea, sakonera nahikoan, giltzarriaren gainean arroka-estalki nahikoa bermatzeko edo, bestela, trazadura bat sartzea, linea berriaren tartea aire zabaleko lurzoru horiekin bat etorritik ahal izateko.

Lurzorua eta arroka arteko kontaktuaren sakontasun erlatiboa zehatz-mehatz identifikatzeko, azterlan geofisiko bat egin da MASW eta HVSR bidez eta, horri esker, Errekaldeko eremuko lurzorua eta arroka arteko kontaktuaren gutxi gorabeherako azalera lortu da.

5.1.2 TRAZADURAREN DESKRIBAPENA

4. linea berriaren definizio geometrikoaren ardatza 0+000 KPn hasten da, etorkizunean ADIFen zabalera metrikoko linearen trazadurarekin (FEVEk kudeatzen duenarekin) lotuko litzatekeen puntuarekin bat etorritik, eta azken hori Abandora sartzeko tunelarekin bat dator.

Trazaduraren beste muturrean, ADIF RAMen linearekin lotuko litzateke, Basurtuko eta Ametzolako geltokien arteko lurperatzearen tunel faltsuarekin bat eginez, lehenengotik oso gertu.

Ardatz horien trazadura osoak konexioaren bideragarritasuna bermatzen du, baina **azterlan informatibo honen xede den azpiegitura berriaren tarte bakarra 0+120 KPren eta 2+450 KPren artean egingo litzatekeena da.** Tunelean induskatutako 2.330 metroko tartea da, eta haitzuloan diseinatutako bi geltoki eta etorkizunean ebakuazio-irteera gisa erabili ahal izango diren bi eraso-arrapala ditu.



PK 0+120-ESTACIÓN IRALA

El primer tramo de la infraestructura propuesta se extiende entre su inicio en el PK 0+120 y el testero inicial de la Estación de Irala, en el PK 0+443. En este tramo el trazado se desarrollaría en túnel en mina, contando este con múltiples condicionantes que complican el trazado del mismo.

La principal dificultad radica en la presencia de los túneles de ancho convencional de ADIF operados por RENFE (túnel de la Casilla de acceso a la Estación de Abando y variante de mercancías que conecta este túnel con el de Cantalojas). La presencia en superficie del aparcamiento subterráneo de la Avenida Kirikiño obliga a adoptar un trazado que cruce por debajo de los túneles operados por RENFE.

El trazado cruza bajo los túneles con escasa tapada, lo que requerirá de secciones de túnel muy reforzadas que garanticen la viabilidad del cruce en condiciones de seguridad, para después ascender con la pendiente máxima hasta las inmediaciones de la Estación de Irala, intentando minimizar la longitud de los cañones de acceso a la misma.

0+120 KP-IRALAKO GELTOKIA

Proposatutako azpiegituraren lehen tarte 0+120 KPN hasi eta Iralako geltokiaren hasierako buruhormaraino doa, 0+443 KPraino. Tarte horretan, trazadura meatze-tunelean egingo litzateke eta horrek hainbat baldintzatzaile izango lituzke, trazadura zailtzen dutenak.

Zailtasun nagusia RENFEk kudeatzen dituen ADIFen zabalera konbentzionaleko tunelak egotea da (Abandoko geltokira sartzeko La Casillako tunela eta tunel hori Cantalojasekoarekin lotzen duen salgaien saihebidia). Kirikiño etorbideko lurpeko aparkalekua gainazalean dagoenez, RENFEk kudeatutako tunelen azpitik igaroko den trazadura bat aukeratu behar da derrigorrez.

Trazadurak estalki eskaseko tunelen azpitik gurutzatzen du eta, horretarako, tunel-atal oso indartuak beharko dira, gurutzatzea segurtasun-baldintzetan bideragarria dela bermatzeko; ondoren, gehieneko maldarekin igoko da Iralako geltokiaren inguruetaraino, geltokira sartzeko kanoien luzera ahalik eta txikiena izan dadin.

ESTACIÓN DE IRALA

La caverna de estación se extiende entre los PK 0+443 y 0+552, se enmarca en un trazado completamente rectilíneo en planta y de rasante horizontal.

La cota de estación viene condicionada por la presencia inmediatamente después de la misma de la Variante de mercancías de la antigua FEVE y por los túneles de desagüe proyectados entre La Peña y Olabeaga.

IRALA- REKALDE

El trazado en planta del túnel de línea entre ambas estaciones describe una curva a derechas con desarrollo superior a los 950 metros. El túnel sale de la Estación de Irala cruzando bajo la Variante de mercancías de la antigua FEVE, con aproximadamente un diámetro de tapada de roca entre ambas, para pasar luego sobre los túneles de desagüe previstos. Todo ello condiciona el perfil longitudinal de la nueva línea en este tramo y la propia cota de la Estación de Irala.

A penas 100 metros más adelante el trazado vuelve a cruzar a desnivel con otra infraestructura, en este caso el túnel de la antigua variante, hoy fuera de servicio, pasando bajo la misma con una importante tapada de roca entre ambos túneles.

A partir de este punto el trazado se desarrolla sin grandes condicionantes, con una inclinación de la rasante de 25 milésimas que se extiende hasta las inmediaciones de la Estación de Rekalde.

ESTACIÓN DE REKALDE

La Estación de Rekalde se extiende entre los PK 1+662 y 1+771, su disposición en planta y alzado viene muy marcada por el espesor de suelos en el entorno de la Calle Gordoniz, que condiciona la ejecución de la estación y de los cañones de acceso a la misma.

La disposición finalmente adoptada permite garantizar una tapada de roca suficiente para poder ejecutar una estación tipo caverna excavada en roca y, a la vez, diseñar cañones de acceso cuyo trazado coincida con zonas libres de edificación que permitan ejecutar a cielo abierto entre pantallas los tramos cercanos a superficie.

ESTACIÓN DE REKALDE – EMBOQUILLE BAJO AUTOPISTA A-8

El tramo final de la nueva infraestructura se extiende entre el testero final de la Estación de Rekalde y el final del túnel en mina en el PK 2+450, coincidiendo con lo que a futuro sería el falso túnel de entronque con la línea de ADIF RAM.

IRALAKO GELTOKIA

Geltokiko haitzuloa 0+443 eta 0+552 KP artean hedatzen da, eta oinplanoan guztiz zuzena den eta sestra horizontaleko trazadura du.

Geltokiaren kota FEVEren salgaien saihebidet zaharraren ondoren egoteak baldintzatzen du, eta baita Abusu eta Olabeaga artean proiektatutako hustubide-tunelak ere.

IRALA- ERREKALDE

Bi geltokien arteko lineako tunelaren oinplanoko trazadurak eskuinerako kurba bat egiten du, 950 metrotik gorako garapena duena. Tunela Iralako geltokitik irtetzen da, FEVEren salgaien saihebidet zaharraren azpitik gurutzatuz; bien artean, gutxi gorabehera, arroka-estalki diametro bat du eta, ondoren, aurreikusitako hustubide-tunelen gainetik igarotzen da. Horrek guztiak linea berriaren luzetarako profila baldintzatzen du tarte horretan, eta baita Iralako geltokiaren kota bera ere.

100 metro aurrerago, trazadurak beste azpiegitura bat gurutzatzen du desnibelean: kasu honetan, saihebidet zaharraren tunela da, gaur egun erabili gabe dagoena, eta haren azpitik arroka-estalki handia igarotzen da, bi tunelen artean.

Puntu horretatik aurrera, trazadura elementu baldintzatzaile handirik gabe garatzen da; sestrak 25 milareneko malda du eta Errekaldeko geltokiaren inguruetaraino iristen da.

ERREKALDEKO GELTOKIA

Errekaldeko geltokia 1+662 eta 1+771 KP artean dago; oinplanoan eta altxaeran duen kokapena Gordoniz kalearen inguruko lurzoruen lodierak markatzen du hein handi batean, eta horrek baldintzatu egiten ditu, bai geltokia, bai bertara sartzeko kanoiak.

Azkenean aukeratu den antolamenduari esker, arroka-estalki nahikoa bermatu ahal izango da, arrokan zulatutako haitzulo-itxurako geltoki bat egin ahal izateko eta, aldi berean, sarbide-kanoiak diseinatu ahal izango dira. Kanoi horien trazadurak bat egingo du eraikuntzarik gabeko eremuekin, gainazaletik gertuko tartetean aire zabalean eta pantaila artean egin ahal izateko.

ERREKALDEKO GELTOKIA – A-8 AUTOBIDEAREN AZPIKO AHOKOA

Azpiegitura berriaren azken tartearen Errekaldeko geltokiaren amaierako buruhormaren eta meatze-tunelaren amaieraren artean dago, 2+450 KPn; etorkizunean ADIF RAMen linearekin lotzeko tunel faltua izango litzatekeenarekin bat eginez.

El trazado en alzado de este tramo se desarrolla con una pendiente de 45 milésimas motivada por la diferencia de cota entre la Estación de Rekalde, cuya cota de rasante está condicionada por la presencia de los suelos sobre la clave de la misma, y la rasante que desarrolla la línea de ADIF RAM entre las Estaciones de Basurto y Ametzola.

El trazado finaliza en el emboquille de salida del túnel en mina que se produce bajo la calzada Donostia-Santander de la A-8 en una zona en que la autopista discurre en trinchera, lo que permitiría realizar el emboquille sin afectar a la circulación en la A-8.

5.2 GEOLOGÍA Y GEOTECNIA

En el “Anejo nº3: Geología y Geotecnia” se aborda la caracterización geológica y geotécnica del ámbito en que se desarrolla el trazado, se determinan las principales características geológicas y geotecnicas de los materiales atravesados por las trazas en estudio y se identifican los principales condicionantes geotécnicos que puedan existir.

5.2.1 CAMPAÑA GEOTÉCNICA

Para la elaboración del estudio geológico se ha realizado una recopilación previa de la información disponible de otras campañas de reconocimientos geotécnicos. Se ha recopilado cartografía, descripciones geológicas y reconocimientos geotécnicos de los siguientes proyectos y estudios:

- VSM Tramo 8B
- Estudio geológico y geotécnico de la variante sur (Solución Sur), 1966
- Muros Kastrexana
- Estudio Informativo Línea 4 2012 y 2016
- Proyecto de Construcción del soterramiento de la línea de FEVE Basurto-Aritz: Tramo 1.
- Proyecto de Construcción del soterramiento de la línea de FEVE Basurto-Aritz: Tramo 2: Rekalde – Irala, BILBAO RIA 2000, Mayo 2010.
- Proyecto Cubierta Olabeaga (2008, 2012)
- Variante Sur Ferroviaria (2018)
- Estudio Alternativas Basurto - Ariz
- P.C. Basurto-Ariz Tramo 2: Rekalde-Irala

Tarte horren altxaerako trazadurak 45 milareneko malda du, Errekaldeko geltokiaren kotaren eta Basurto eta Ametzola geltokien artean ADIF RAMen linean egiten duen sestraren arteko aldeagatik. Errekaldeko geltokiaren kasuan, sestra-kota giltzarriaren gainean dauden lurzoruek baldintzatzen dute.

Trazadura A-8aren Donostia-Santander galtzadaren azpian dagoen meatze-tunelaren irteerako ahokoan amaitzen da, autobidea lubakian doan eremu batean. Horri esker, ahokoa A-8ko trafikoari eragin gabe egin ahal izango litzateke.

5.2 GEOLOGIA ETA GEOTEKNIA

Trazadura garatzen den eremuaren karakterizazio geologikoa eta geoteknikoa “3. eranskina: Geologia eta geoteknia” eranskinean jorratzen da. Bertan, aztertzen ari garen diseinuek zeharkatzen dituzten materialen ezaugarri geologiko eta geotekniko nagusiak zehazten dira, eta egon daitezkeen baldintzatzaile geotekniko nagusiak identifikatzen dira.

5.2.1 KANPAINA GEOTEKNIKOA

Azterketa geologikoa egiteko, bestelako azterketa geoteknikoen kanpaina batzuetako informazioa bildu da alde zurretik. Honako proiektu eta azterlan hauen kartografia, deskribapen geologikoak eta azterketa geoteknikoak bildu dira:

- Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidea 8B tarte
- Hegoaldeko saihesbidearen azterketa geologikoa eta geoteknikoa (Hegoaldeko irtenbidea), 1966
- Kastrexanako hormak
- 4. linearen azterlan informatiboa, 2012 eta 2016
- Basurto-Ariz FEVEren linea lurperatzeko eraikuntza-proiektua: 1. tarte
- Basurto-Ariz FEVEren linea lurperatzeko eraikuntza-proiektua: 2. tarte: Errekalde – Irala, BILBAO RIA 2000, 2010eko maiatza.
- Olabeagako Estalkiaren proiektua (2008, 2012)
- Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea (2018)
- Basurto-Arizerako alternatiben azterketa
- EP Basurto-Ariz 2. tarte: Errekalde-Irala

Algunos de estos estudios se encuentran alejados de la zona de estudio del presente documento, pero sirven para realizar un encuadre geológico regional. Los estudios más cercanos a las trazas en estudio, cuya información se considera más útil por su cercanía al trazado son los realizados para la Variante Sur Ferroviaria, el Estudio Informativo de la Línea 4 (2012 y 2016) y el PC del Soterramiento de la línea de FEVE en el tramo: Rekalde-Irala. Así mismo el perfil del viaducto de la Solución Sur de 1966 proporciona información relevante acerca de esta zona del trazado.

Una vez analizada toda la información disponible, se ha realizado, en el marco del presente Estudio Informativo, una campaña geotécnica centrada en el entorno de la alternativa seleccionada que sirva de complemento a las campañas existentes. El objetivo más importante de esta campaña es detectar la presencia de depósitos de suelos de gran potencia en el entorno de Rekalde, donde en algunos casos presentan más de 30m de espesor.

La campaña realizada incluye la ejecución de 10 sondeos a rotación en la zona de implantación de la alternativa, en base a la información recogida en los sondeos, así como en las muestras inalteradas, alteradas procedentes de los ensayos SPT y de los testigos parafinados en roca se han podido realizar ensayos de laboratorio para la definición geomecánica de los materiales presentes a lo largo del trazado.

Se ha realizado, así mismo, una campaña de geofísica con dos objetivos. Por un lado, conocer el subsuelo de la zona de la rampa de ataque cuya boca se sitúa en el parque Eskurtze y por otro lado proporcionar información acerca del contacto suelo-roca en el barrio de Rekalde.

En el Anejo nº3 se recoge toda la información recopilada de estudios anteriores, así como todos los detalles relativos a la campaña de campo realizada en el marco del presente Estudio Informativo.

5.2.2 MATERIALES A LO LARGO DE LA TRAZA

El estudio se inicia en el PK 0+120 del eje, una vez que el trazado se separa de la línea de ADIF RAM. En esta zona el subsuelo se encuentra ocupado por lutitas calcáreas con pasadas de areniscas hasta la estación de Irala. Los sondeos en la zona previa al inicio del eje muestran una cobertera sobre el contacto suelo/roca en torno a los 7 m compuestas por rellenos antrópicos en los 1,5 primeros metros y por arcillas pardo-amarillentas en el resto. Este nivel de suelos se adelgaza enormemente hasta el sondeo SI-3 (SENER,2010) en el que la potencia de suelos ronda los 1.50 m.

En este tramo la roca se encuentra bastante fracturada hasta los 20 m de profundidad. En el sondeo SI-3 (SENER, 2010) la roca se encuentra mucho menos fracturada, con RQD en muchos tramos del orden de 100%.

Azterlan horietako batzuk dokumentu honen azterketa-eremutik urrun daude, baina eskualdeko kokapen geologikoa egiteko balio dute. Aztertzen ari garen diseinuetatik gertuen dauden azterlanen informazioa erabilgarriagozat jotzen da, trazaduratik hurbil daudelako. Honako hauek dira: Hegoaldeko Trenbide Saihesbiderako egindakoak, 4. linearen azterlan informatiboa (2012 eta 2016) eta FEVEren linea Errekalde-Irala tartean lurperatzeko EP. Halaber, 1966ko Hegoaldeko irtenbideko saihesbidearen profilak trazaduraren eremu horri buruzko informazio garrantzitsua ematen du

Eskura dagoen informazio guztia aztertu ondoren, azterlan informatibo honen esparruan, hautatutako alternatibaren ingurunean oinarritutako kanpaina geoteknikoa egin da, lehendik eginda dauden kanpainak osatzeko. Kanpaina honen helburu garrantzitsuena Errekalde inguruan potentzia handiko lurzoruen metaketak ote dauden detektatzea da, kasu batzuetan 30 metro baino gehiagoko lodiera baitute.

Egindako kanpainaren barruan txandakako 10 zundaketa egin dira alternatiba ezartzeko eremuan. Zundaketetan jasotako informazioan oinarrituta, bai eta aldatu gabeko laginetan, SPT entseguetatik eratorrita aldatu diren laginetan eta arrokan parafinatutako lekukoetatik ateratakoetan oinarrituta ere, laborategiko entseguak egin ahal izan dira, trazaduran zehar dauden materialak geomekanikoki definitzeko.

Halaber, geofisika kanpaina bat egin da, bi helbururekin: batetik, Eskurtze parkean ahoa duen eraso-arrapalaren eremuko zorupea ezagutzeko eta, bestetik, Errekalde auzoko lurzoruen eta arrokan arteko kontaktuari buruzko informazioa ematea.

3. eranskinean aurreko azterlanetatik bildutako informazio guztia jasotzen da, bai eta azterlan informatibo honen esparruan egindako landa-kanpainari buruzko xehetasun guztiak ere.

5.2.2 DISEINUAN ZEHAR DAUDEN MATERIALAK

Azterlana ardatzaren 0+120 KPn hasten da, trazadura ADIF RAMen lineatik bereizi ondoren. Eremu horretan, lurpean kare-lutitak daude, hareharrizko zatiak dituztenak Iralako geltokiraino. Ardatzaren hasieraren aurreko guneko zundaketek lurzoru/arroka kontaktuaren gaineko 7 bat metroko azal bat dagoela erakuste dute, lehen 1,5 metroetan betegarri antropikoz osatuta eta, gainerakoetan, buztin arre horixkez osatuta. Lurzoru-maila hori izugarri mehetzen da SI-3 zundaketaraino (SENER, 2010); lurzoruen potentzia 1.50 m ingurukoa da.

Tarte horretan, arroka nahiko hautsita dago, 20 metroko sakonerara arte. SI-3 zundaketan (SENER, 2010) arroka askoz hein txikiagoan dago hautsita, eta tarte askotan RQDa % 100ekoa da.

La caverna correspondiente a la estación de Irala, así como los cañones de acceso y el ascensor se encuentran también constituidos por lutitas calcáreas sin embargo tal y como se muestra en el sondeo S-3 (UTE PAGASARRI, 2006) la alteración alcanza cotas más profundas, hasta los 12 m. En el S-2 (situado en la boca del cañón de la calle Eskurtze) de esta misma campaña, sin embargo, aparece la roca apenas fracturada a partir de los 5 m, lo que hace pensar en alguna zona localizada asociada a alguna falla.

El tramo situado entre las estaciones de Irala y Rekalde se caracteriza por presentar el mismo sustrato rocoso que en la zona de Irala, lutitas calcáreas, y una importante acumulación de suelos antrópicos, producto de la actividad minera de la zona probablemente. Se tiene constancia de que el túnel de la línea Basurto-Ariz, sin servicio actualmente, que es atravesado en esta zona es un falso túnel apoyado sobre la superficie (en su día), lo cual marca el espesor de los rellenos en este punto. El sondeo SL4-3 realizado en el Parque Eskurtze muestra la presencia de 8 m de rellenos antrópicos bajo los cuales se sitúan materiales aluviales (arcillas marrones y limos grises) hasta una profundidad de 13.60 m.

La roca en esta parte del trazado presenta RQD de 100% a la cota del túnel. Cabe destacar también la presencia de tres diques de rocas subvolcánicas que se cortarían de forma subperpendicular al trazado.

A partir del PK 1+450 aproximadamente se corta un nivel de calizas arrecifales urgonianas, puestas de manifiesto a través de los sondeos SL4-10, SL4-4, SL4-7 y SL4-8. Estas calizas se encuentran fuertemente karstificadas, siendo frecuentes en los sondeos zonas rellenas por arcillas o vacíos. La relación entre zonas sanas y zonas karstificadas, a partir de los sondeos es del 18%, lo cual parece ciertamente elevado.

Esta zona se prolonga hasta el PK 1+800 si bien pequeñas variaciones en la potencia o en la dirección del paquete podrían hacerlo llegar hasta el PK 2+100 puesto que presenta una dirección subparalela al eje del túnel.

A partir de este PK el eje se adentra de nuevo en las lutitas calcáreas, con una pendiente de 35-40° hacia el sur. El sondeo SL4-5 realizado en las proximidades del emboquille de salida muestra una roca poco fracturada con valores del RQD del 100%.

Iralako geltokiari dagokion haitzuloa, sarbide-kanoiena eta igogailuarena ere kare-lutitaz osatuta daude, baina S-3 zundaketan (PAGASARRI ABEE, 2006) ikus daitekeen bezala, alterazioa kota sakonagoetara iristen da, 12 metrora. Kanpaina bereko S-2an (Eskurtze kaleko kanoiaren ahoan), ordea, 5 metrotik aurrera agertzen da oso haustura gutxiko arroka, eta horrek pentsarazten du failaren bati lotutako guneren bat egon daitekeela.

Iralako eta Errekaldeko geltokien arteko tartearen ezaugarria da Iralako eremuko substratu arrokatu bera duela, kare-lutitak, alegia, eta lurzoru antropikoen metaketa handia, inguruko meatze-jardueraren ondorioz ziurrenik. Jakin badakigu gaur egun erabili gabe dagoen Basurto-Ariz lineako tunela, eremu horretan zeharkatzen dena, (bere garaian) gainazalaren gainean bermatutako tunel faltsu bat dela, eta horrek zehazten duela betegarrien lodiera puntu horretan. Eskurtze parkean egindako SL4-3 zundaketak 8 metroko betegarri antropikoak erakusten ditu, eta horien azpian material alubialak (buztin marroiak eta lohi grisak) daude, 13.60 metroko sakoneraraino.

Trazaduraren zati horretan, arroka % 100eko RQD du tunelaren kotan. Aipatzekoa da, halaber, arroka filoniarrez egindako hiru dike daudela, trazadurarekiko azpipendikularrean ebakiko direnak.

1+450 KPtik aurrera, gutxi gorabehera, kareharri arrezifal urgondarren maila bat ebakitzen da, eta agerian jarri da SL4-10, SL4-4, SL4-7 eta SL4-8 zundaketen bidez. Kareharri horiek oso karstifikatuta daude, eta ohikoa da zundaketetan buztinez betako eremuak edo hutsuneak aurkitzea. Gune osasuntsuen eta gune karstifikatuen arteko erlazioa, zundaketen arabera, % 18koa da; oso handia dela dirudi, beraz.

Gune hori 1+800 KPraino luzatzen da, potentzian edo paketearen norabidean aldaketa txiki batzuk direla-eta 2+100 KPraino iritsi badaiteke ere, tunelaren ardatzarekiko norabide azpiparaleloa baitu.

KP horretatik aurrera, ardatza kare-lutitetan barneratzen da berriro, eta 35-40°-ko malda du hegoalderantz. Irteerako ahokoaren inguruan egindako SL4-5 zundaketak haustura gutxiko arroka erakusten du, % 100eko RQD balioekin.

5.2.3 RIESGOS GEOLÓGICOS

El entorno geológico de la zona está constituido por un sustrato rocoso (edad Cretácico inferior y formado habitualmente materiales de la formación Ereza compuestas por lutitas calcáreas y areniscas de calidad media, así como por las Calizas de Arraiz formadas por calizas y margas calcáreas, nodulosas en ocasiones. Se cortarán varios diques de rocas subvolcánicas

Se trata en general de un medio estratificado con 2-3 familias de discontinuidades de persistencia métrica. Poco permeable a impermeable por lo que la entrada de agua a excavaciones da un flujo de unos pocos litros/minuto. No se descartan flujos mayores provenientes de conductos kársticos, cuestión que deberá ser dilucidada en el proyecto constructivo.

Localmente la roca puede verse afectada por algunos fenómenos que afectan de manera significativa a su resistencia y comportamiento tenso-deformacional. Entre estos fenómenos destacan la presencia de una esquistosidad bastante penetrativa (detectada en el Estudio Informativo Línea 4, 2016), fallas de escasa entidad (no obstante, no se deben descartar elementos de mayor envergadura), plegamientos, cambios litológicos locales, diques, ...etc, sobre todo en el entorno de la estación de Irala.

Este sustrato se encuentra normalmente cubierto por un espesor variable de suelos, que puede oscilar entre los 2m y los 30m, debido a zonas de paleocauces con potentes espesores de suelos aluviales o bien por horizontes de alteración del sustrato rocoso potentes. El espesor y naturaleza de estas zonas con grandes espesores de suelos debe ser analizada en profundidad en posteriores estudios ya que en un entorno urbano la existencia de suelos supone un importante condicionante geotécnico.

No hay que olvidar la existencia de una importante karstificación que afecta a la barra caliza urgoniana y que ha sido puesta de manifiesto en varios sondeos incluyendo la presencia de huecos y rellenos arcillosos de cavidades en un 18% del volumen total.

5.3 ESTACIONES

5.3.1 ESTACIÓN DE IRALA

La caverna de estación se implanta soterrada a considerable profundidad bajo el barrio de Irala, coincidiendo en planta bajo la manzana delimitada por las Calles Avenida Kirikiño, Calle Eskurtze, Avenida Bergara y Travesía Irala.

5.2.3. ARRISKU GEOLOGIKOAK

Gune horretako ingurune geologikoa substratu arrokatu batek osatzen du (Behe Kretazeokoa) eta Eretza formazioko materialez osatuta egon ohi da —kalitate ertaineko kare-lutitekin eta hareharriekin—, bai eta Arraizeko kareharriz ere —batzuetan nodulutsuak diren kareharri eta kare-tuparriekin—. Arroka filoniarrezko zenbait dike ebakiko dira.

Oro har, ingurune estratifikatu bat da, jarraitutasun metrikoa duten etenen 2-3 familiarekin. Iragazkortasun txikikoa edo iragazgaitza denez, indusketetara sartzen den urak litro gutxi batzuetako jariora ematen du minutuko. Ez da baztertzeko hodi karstikoetatik datozen jario handiagoak egotea, eta hori eraikuntza-proiektuan argitu beharko da.

Leku batzuetan, zenbait fenomenok arrokarari erasan diezaioke, eta horrek nabarmen eragiten die arrokaren erresistentziari eta tentsio/deformazio portaerari. Fenomeno horien artean, honako hauek dira aipatzekoak: eskistositate nahiko sarkorra (4. linearen azterlan informatiboan detektatu zen, 2016an), garrantzi txikiko failak (hala ere, ez dira baztertu behar elementu handiagoak), tolesturak, tokiko litologia-aldaketak, dikeak eta abar; Iralako geltokiaren inguruan batez ere.


Substratu hori lurzoruen lodiera aldakorrez estalita egon ohi da, eta lodiera hori 2 m eta 30 m artekoa izan daiteke, lurzoru alubialen lodiera potenteak dituzten paleoibilgu-guneen ondorioz, edo substratu arrokatuaren alterazio-horizonte potenteen ondorioz. Lurzoruen lodiera handia duten eremu horien lodiera eta izaera sakon aztertu behar dira ondorengo azterketetan, baldintzatzaile geotekniko garrantzitsua baita hiri-ingurune batean lurzoruak egotea.

Ezin dugu ahaztu kareharri urgondarraren barrari eragiten dion karstifikazio handi bat dagoela, hainbat zundaketek erakutsi dutenez, eta bolumen osoaren % 18an zuloak eta barrunbe-betegarri buztintsuak daudela.

5.3. GELTOKIAK

5.3.1 IRALAKO GELTOKIA

Geltokiko haitzuloa lurpean dago, sakonera handian, Irala auzoaren azpian. Oinplanoan bat dator Kirikiño etorbideak, Eskurtze kaleak, Bergara etorbideak eta Irala zeharkaleak mugatutako etxadiaren azpiko eremuarekin.




La caverna que da cabida a la Estación tiene una longitud interior de 108 metros entre extremos coincidiendo el inicio y final de la excavación de la misma con el PK 0+442,000 y el PK 0+551,803 del eje de trazado de la línea.

La cota de rasante en la recta de estación es la 24,20, siendo la diferencia de cotas con el terreno sobre el eje de la misma de entre 35 y 25 metros. La considerable profundidad de la caverna viene condicionada por el cruce de la Línea 4 bajo los túneles de RENFE antes de la estación y bajo la variante de la línea Ariz-Basurto inmediatamente después.

Esto, unido a la complicada orografía del barrio de Irala, ha condicionado la morfología de los accesos a la estación desde el mismo. El barrio se ubica sobre una ladera de pronunciada pendiente que asciende en la misma dirección que marca la Calle Eskurtze, con una diferencia de cotas de más de 30 metros entre la zona baja de la Calle, donde se ubica el IES Eskurtze y la zona alta, marcada por la Calle Bergara, siendo el punto más alto el cruce de ésta última con la Calle Monasterio.

Los cañones de acceso resultan de considerable longitud, condicionada por la diferencia de cotas a salvar con la superficie.



Geltokia hartzen duen haitzuloak 108 metroko barne-luzera du muturren artean, eta haren indusketaren hasiera eta amaiera bat datoz linearen trazadura-ardatzaren 0+442,000 KPrekin eta 0+551,803 KPrekin.

Geltoki-zuzenguneko sestra-kota 24,20 da, eta ardatzaren araberako lursailaren koten arteko aldea 35 eta 25 metro bitartekoa da. Haitzuloaren sakonera handia da, honako arrazoi hauengatik: geltokia baino lehen, 4. lineak RENFEko tunelak azpitik gurutzatzen dituelako eta geltokiaren ondoren dagoen Ariz-Basurto linearen saihebidetaren azpitik igarotzen delako.

